

XABIN OLASKOAGA: Galtzaileen ausardia.

Xaguxar

Eskerrik beroenak Xabier Olaskoaga Lasa-ri, beronen laguntzarik gabe ez bait nuen lan hau burutuko.



Xabier "La Sra. Baronesa" interpretatzen.

Zenbaitetan gehiegi espero dugu lagunengandik. Ulertu, kontsolatu eta entzungo gaituztelakoan izaten gara; konturatu gabe, gu geuk ere ez ditugula zenbaitetan beraiek ulertzen, kontsolatzen eta entzuten. Holako zerbait gertatu zitzaidan niri duela gutxi afari batetan, lagunei komentatu nienean Xabier Olaskoaga-ri buruz zerbait idatzi nahi nuela eta ez nuela biderik zuzenena aurkitzen.

Begoñatxuk segituan bota zidan:

-Hori erraza dun, neska! Ez dun ezer asmatu behar eta zailena zerbait asmatzea izaten dun!

Esan beharra dago, Begoñatxu hau gure koadrilako batekin ezkonduko neska on, baino ximple xamarra dela.

Nik ezer erantzun baino lehen, hori hasi zitzaigun beste lagun bat, Josu, guztiz kontrako iritzia eutsiz; adieraziz, izan

ere, biografiak zirela munduan idazteko dagoen gauzarik zailena, eta bere teoria sostengatzen zuten argudioak botatzen hasi zitzaigun, hantxe mahaiean... Hartu zuen doinua, guztiz maixu batena zen. Josu xaxi-letrau xamarra dugu. Behin ipuin sari bat jaso zuelako nahikoa harrotua, nahiz eta guk -inbidioso arraioak- Atxagari imitatu ziola uste izan.

Irakurleak ulertuko duenez, afari bat edota OARSO aldizkaria ez dira leku aproposak literatur klaseak emateko. Begoñatxu erritan hasi baino lehen -bere ohizko jarrera, bestalde- gaia moztu nuen eta kantuan eta brometan jarraitu genuen, nik nire kezka barruan gordeaz eta bihotzean zerbait mingotsa kokatzen zitzaidala sentituz.

Biharamunean, kopatxoak hartzeko asmotan sartu ginenean tabernetako musika ozenaren danbatekoak buruan ixildu zitzaizkidanean, pentsatzen hasi nintzen koadrilakoek, azken finean, lagundu egin zidatela.

Begoñatxuk zion eran ez nuen ezer asmatu beharrik, eta Josuk sakon eta luze esplikatzen nahi izan zigunez, ez nuen Xabierren biografia alabantza hutsatik eraiki behar, ez mendeku aldetik ere, protagonismoa Xabier berari utziaz. Dena den, afarian izandako giro, umore eta kantak lagungarri gertatuko zitzaizkidan.

Xabier Olaskoaga 1.911garren urtean jaio zen Erreterian. Herriak lau mila biztanle inguru zuen eta jadanik baita industri giroa ere. Garai hartako haur guztien moduan, Xabier eskolan sartu bezain pronto, Parrokiko koruan kantatzen hasi zen. Bertan osatuko zuen bere prestakuntza musikala eta Parrokiko koruan agertuko ziren lehenengoz musikarako zituen afizio eta trebetasuna.

Tenore ahots eder baten jabe, klarinetea jotzen ere ikasiko zuen eta laister Bandako partaide izango zen.

Txikitan urrun sentitu zituzten Gerra Handia-ri buruzko komentarioak. Gaztaroan, Errepublikak, gatazkak, baita lehenengo Aberri Egunak eta Euskal kulturaren barne mugimen sortzaile eta berriztatzailerak ere. Hamaika ekintzetan hartu zuen parte Xabierrek: antzerkia, korua, Banda, entsaioak...

Gerra hastean, dena ixilduko da. Bere pentsakerari eutsiz, Xabier gudari joan zen. Ondoren, gerra galduko zuen eta preso hartuko zuten. 1.939garren urtean, Xabier Olaskoaga 28 urteko gaztea dugu. Aske gelditzean ekingo zion berriro "La Fabril Lanera"-ko lanari, berriro egunerokotasunari... Baina ingurua inoiz baino trixteagoa; lagunak, hilak, preso edota herbestera- turik...

1.940. urtean, une gogorretan ezagututako Víctor Gracia eta beste lagun batzuekin "Easo Abestaldea" osatu zuten. Bertatik irtena zen hilabete batzuk lehenago XEY Taldea, berri- tua eta birsortua: "Agrupación Músico-Vocal XEY" izenez plazaratuta. Argitu dezagun lagun horiek zeintzuk ziren: Guillermo Lazkano, pianojole eta eresleria, Xabier Olaskoaga,



"Despedida Bilbon". 1946-04-03. Eskerretik eskuinera: Jose Luis Ugarte, Iñaki Basterrika, XX, Victor Gracia, zutik. Mariano Olaskoaga, Xabin Olaskoaga, Xabier Olaskoaga eta Xalba Bengoetxea, makurturik.

Txomin Arrasate, Txiki Lahuerta, Víctor Gracia eta Pepito Yanci, soinu-jolea. Xabierrek 1.941. urteko Irailean, taldea utzi behar izan zuen, "Trabajadores" izeneko batailoira zigortuta joan zelako. Orduan Xabin-ek, bere ahots paregabeaz taldea osatu zuen. Gosea, beharra, mendekua eta trixtura nagusitu ziren garai hartako gizaratean. XEY-tarrek, gerran galtzaile izan ondoren, ez zuten amore eman nahi izan. Tinko eutsiko zioten onork kendu ezin zienari, beren musikal prestakuntza gorena, ahots ederrak. umore eta antzerkirako dohai bereziak, hain zuzen.

Segituan hasiko zen XEY Taldearen arrakasta, aktuaziok ugarituko ziren. 1.944an bertan, XEY-tarrek beren biziko erabakia hartu zuten: profesionalizatu egin ziren. Akabo "La Fabril Lanera"-ko ordu astunak, akabo ere lan fijo baten segurtatea, nahiz eta apala izan. Buru belarri jardungo ziren arrakasta handiago baten atzetik.

Ordukoak dira Columbiako estudio zaharretako grabaketak, Donostiako Antigua auzoko aldean.... Goizean grabatzen hasi eta behin eta berriz grabatzen joan, oker batek grabaketa puntatik puntara berriro egin behar izatea suposatzen baiduzen. Nahiz eta gaur egungo baliabiderik ez izan -promozio kanpañak asmatu gabeak ziren oraindik- eta batez ere, irratia- ren bitartez, oso ezagunak gertatu ziren. "El reloj del abuelo", "Yes, yes", "Jalisco", "Los del Amaika", "Pollo asau", "Pepita", "Aquellos tiempos"...dira garaiko abesti ezagunenetakoa. Zerrenda etengabea bihurtuko litzateke. Edozein kanta Txomin Arrasatek moldaturik, holako ahots ederretan kantatua eta gainera, antzeztua, ahaztezina bihurtzen zen.

Bitartean munduan gerra zegoen. Celia Gámez-en Konpañian lanean ari zirela Bartzelonan, jakingo zuten XEY-tarrek Bigarren Gerrate Mundiala bukatu zela, Txiki Lahuertaren arrebaren baten ezpainetatik. Errebistan jasotzen zituzten txaloek General Begi-Bakarreko lagunmina jeloskorra jarri zuten.

Hiru pelikuletan ere parte hartu zuten: "Nuestras vidas", "Habanera" eta "Historias de la radio". Azken hau, zenbait kritiko- en iritziz filma zoragarria, urte hauen ispilu paregabea.

1.946garreneko Apirilaren 3an, XEY-tarrek Monte Albertia ontzian ditugu Amerikaruntz. Dударik gabe, beste apustu bat egin zuten. Lurralde urrunean txaloak sor daitezke, noski, baina, baita ere, apurka-apurka, ahaztuta gelditzen joatea..

Barkua Bilbotik ateratzen hasi zenean, Xalba Bengoetxea erreteriarak, agurra jo zuen lehorretik eta hantxe, kaian, Bixente Amunarriz-ek dantzatu zuen aurrekua. Gero eta urrunago barkoa, gero eta txikiago dantzaria...

Monte Albertian zihoala izango zuen Xabinek bere amaren heriotzaren berri. Berak, sentiberetasuna beti agertu zuenak, oso une gogorra jasan behar izango zuen.

Ameriketan, arrakasta handia izan zuten. Luzeegia da omenaldi eta ohore guztien berri ematea. Aipatu, bai, Chile, Mexico, Puerto Rico, Cuba, Argentina eta República Dominicana zeharkatu zituztela behin eta berriz.

Espainia aldean edozein estiloko kantak kantatzen bazituzten ere, Ameriketan, euskal kantak ziren nagusiki entzulegoak eskatzen zituztenak. Lan eza edota herbesteraketa zirela medio, herritik kanpora joandako euskaldunak hurbiltzen zitzaizkien. XEY taldea enbaxadore genuen.

1.951garren urtean, Xabin ezkondu zen Cuba-n. Bertan jaioko zen bere alaba ere.

Beti, Erreterian, etxeokok jaso zituzten bere kartak, xamur- rakk eta umoretsuak; bere argazki xelebreak, etxeokok bakarrik ondo asko ulertzen zituzten komentarioz osaturik. Beti izan nahi zuen herriaren berri eta era horretan jarraitu zuen bere herriaren bilakaera.

Omenaldi xelebre artean aipatu Mexico-ko "Centro Vasco"-n egin zietena "A las sufridas mujeres de los XEY". Bitartean, irratia eta Columbia diska zaharrak direla medio, beste belaunaldi batek izango zuen XEY Taldearen berri. Zenbait patioetan, buzoak zintzilikaturik, azalorre usain betegarria eta han, nahiko urruti, irrati bat eta entzule batek, halaxe eskatuz, XEY taldekoaren ahotsak "...la Pochola merendaba anchoitas al pil-pil..." Bien bitartean, Liverpool-en, Paul, John, Georges eta Ringo elkarrekin musika egiten hasiak ziren, eta zuela urte batzuk Elvis *xamur* eta *benetan* maitatzeko eskatzen ari zen.

Urteek ez dute barkatzen. 1961garrenean XEY Taldea erre- tiratu egin zen. Xabin askotan etorriko zen bere herrira, zen- baitetan "Centenario"-a joko zuen berriro.

Pocholari modernitatearen aurrean erne ibiltzeko kantatu diote Xabinek eta bere lagunek. Han, herriko Zumardian dabilen beste batek, Euskalerriko zenbait Txano Gorritxuri kontuz ibiltzeko otsoekin abertituko die. Antzeko kontuak, modu dife- rentetan. Gure koadrilako Begoñatxuk segituan moztuko luke matxista hutsak direla esanez. Ez diezaiogun nostalgiari toki haundiegirik utzi, baina jakin dezagun gure "Monte Albertia" berezian sartu beharrean gaudela. Modu berriak bilatzen ari direnak, gazteago direnak izan bezate Xabinen berri. Holakoxe omen zen "oso goxoa eta alai" dio batek, "Erreteriarekiko maitasun itsua sentitzen zuena" besteak, "gizon fin eta leia- la".... Bihotz barru-barruan gorderik larritasunak, trixturak eta lagunen hutsuneak; urruti txaloen oiartzunak, ezpainetan beti irrifarra, begietan umore eta nostalgiaren diztira.



"Aquellos tiempos que ya pasaron"